Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

OHAR GARRANTZITSUA: LAN-POLTSETAN IZENA EMATEA ETA ESKAERAK AURKEZTEKO EZOHIKO NEURRIAK

2020ko ekainaren 3ko Erabakiaren bitartez, UPV/EHUko Errektorearena, UPV/EHUn irakasleen ordezkapen beharrei erantzuteko hautagaiak poltsa berrietan sartzeko deialdi publikoa egin zen, eskaerak aurkezteko azken eguna 2020ko ekainaren 24a izanik.

Deialdiaren Oinarriek zehazten dute lehiaketan parte hartu nahi izanez gero, interesdunek eskaera bete beharko dutela bide telematikoak erabiliz. Horretarako, berariazko plataforma da ohiko bidea, eta lehentasunez erabiliko da: https://gestion-enplegu.ehu.es

Hautagaiek eskaera paperean aurkeztuz gero, UPV/EHUko **Erregistro Orokorretara** jo dezakete (https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2012/06/1202784a.pdf), eta kontuan izan beharko dute egungo ezohiko egoera dela-eta, UPV/EHUko Erregistro bulegoek, maiatzaren 26tik aurrera, bakar-bakarrik **aldez aurreko hitzorduaren bidez eta 09:00-13:00** ordutegian lanean ari direla.

Beraz, Erregistro Orokorraren bulegoak ez kolapsatzearren, eta dokumentazioa epez kanpo ez aurkezteko, gomendioa da aldez aurreko hitzordurako txanda ahalik eta arinen hartzea eta ez itxarotea epea bukatzear egon arte.

Halaber, hautagaiek agiriak aurkeztu ahal izango dute **gainontzeko Administrazio Publikoen erregistroetan** edo **posta bulegoetan**. Horrela dio, beste bideren artean, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (16.4 artikulua).

IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDETZA